

ANDOAIN / Mad Science-k zomorro eta mineralei buruzko tailerrak egingo ditu

DV. Udal Liburutegiko haurren aretoan Zomorroak eta Mineralmania izeneko bi tailer emango dira urriaren 21 eta 23an. Zientzia dibulгатzea eta irakurzaletasuna bultzatzea dira helburuak. Mad Science taldeak ematen ditu tailer horiek. Talde horrek iaz ere beste zientzia tailer batzuk eman zizkien ikastetxeetatik etorritako haurrei liburutegian bertan. Taldeak heziketa eta zientzia uztartzen ditu modu interaktibo eta partizipatiboan, eta ume eta gazteen irudimena eta jakin-mina suspertzea da bere helburua, baita gure inguruaren zientzia ulertzen laguntzea ere. Horrez gain, metodo zientifikoari dagokionez, adimen eta trebetasuna garatzea ere badu jomuga. Dena den, aurtan bi tailer hauek ez dira egingo ikastetxeen eskutik, baizik eta eskola ordutegitik kanpo. Parte hartzeko liburutegian bertan jaso behar den gonbidapena izan behar da. Tailer biak euskaraz izango dira, eta gutxi gorabehera ordu eta erdikoak.

Zientzialari zoro bat izango da zientzia dibulgazio jarduera modu dibertigarri eta partizipatiboan burutuko duena. Pertsona horrek liburutegiko hainbat liburu aukeratuko ditu tailer bakoitzaren gaiaren arabera, eta umeei aurkeztuko/erakutsiko dizkie. Parte-hartzaileak liburutegia ondo pasatuz ikasteko lekua dela konturatzea nahi dugu.

Lurra Planetaren Urtea dela kontuan hartuta aukeratu dira tailerren gaiak. Lehenengo tailerra, Zomorroak, 6 eta 7 urteko haurrei begira egingo da. Urriaren 21ean, asteartean, arratsaldeko 6etatik 7 eta erdiak arte izango da.

Parte-hartzaileek intsektu baten ezaugarri nagusiak zein diren ikasiko dute, gizakion begien eta intsektuen begien arteko desberdintasunak aztertuko dituzte, intsektu horiek dituzten defentsa-mekanismoen berri izango dute, animalia txiki horien habitatean barrena bidaiatuko dute, eta polinizazio-kontzeptua nahiz intsektuek polinizazio horretan betetzen duten funtzioa ezagutuko dituzte.

Intsektuak, gizaki gehienentzat nazkagarriak badira ere, oso garrantzitsuak eta funtsezkoak dira ekosistementzat. Parte-hartzaileek intsektu bat sortuko dute oroigarri gisa.

Beste tailerra, Mineralmania, 8 urtetik gorako umeei zuzenduta dago. Urriaren 23an, ostegunean, arratsaldeko 6etatik 7 eta erdiak arte izango da. Oraingo honetan, Zientzialari Zoro izan nahi dutenak benetako geologo bihurtuko dira. Formazio geologikoko prozesuak, sailkapen-sistemak eta sumendien erupzio-prozesuak ulertuko dituzte.

Higadura-prozesuen inguruko xehetasunak ikasiko dituzte, lurrikaren zergatia ezagutuko dute, lurrazalaren azpian magma dagoela ikusiko dute.... magma, solidoa ez den konposatu lirdingatsua. Baina hoberena, beraiek, beren eskuekin, sumendi baten maketa egin behar dutenean izango da. Tailer honetan, hurrek lurraren erdirainoko bidaia zirraragarria egingo dute.